

1. PAUSOA

NIRE BIZITZAN, ZER DA BALIOTSUA ETA GARRANTZITSUA?

Sortu zure buruari buruzko “profil” bat, honako galdera hauek oinarri hartuta. Ez dago erantzun zuzen edo okerrik, ezta erantzun on edo txarrik ere!


Ba al dago pertsona izugarriren bat (beharbada, “heroi” bat), liburuetan, filmetan edo serietan (edo bizitza errealean!), niretzat bereziki garrantzitsua dena? Zer miresten duzu harengandik?

Ba al dago zerbait ere beste pertsonengan bereziki sutzen nauena? Zergatik sutzen nau?

Nire gelan edo leku pertsonalean, ba al dago niretzat bereziki garrantzitsua den zerbait? Zergatik da hain garrantzitsua niretzat?

Zer gertatu behar litzateke nire familiak edota nik gure sorlekua utzi eta ihes egin behar izateko?

Beste herrialde batera ihes egin beharko banu, edo ihes egin behar izan badut, noren eta zeren falta sumatuko nuke gehien?



Kontatu zure ikaskideari zer iritzi duzun galdera hauei buruz. Beste lagunak entzun eta esaldi hau osatuz erantzungo dizu:

“ *Esan berri duzun horretatik ondoriozta dezaket zure bizitzan zer den zuretzat garrantzitsua eta baliotsua. Nire hitzak erabiliz, honela adieraziko nuke: Zuretzat...da garrantzitsua eta baliotsua* ”

Laburki aipa dezakezu ea iruditzen zaizun ulertu zaituela eta nola deskribatuko zenukeen zuk zuretzat zer den garrantzitsua eta baliotsua. Gero, beste lagunak galderei eman dizkion erantzunak kontatuko dizkizu, eta zuk itzultze-lana egingo duzu berarekin.



2. PAUSOA

NIRE BALIOAK - ZURE BALIOAK: DESBERDINTASUNAK KUDEATZEA

Pentsatu honako galdera hauei buruz eta idatzi:

Zer idei desberdin ditugu bizitzan garrantzitsua eta baliotsua denari buruz? Seguru zure ez bestelako ideiak dituzten pertsonekin topatu zarela behin baino gehiagotan. Egin zerrenda bat egoera hauekin eta hautatu bereziki gogoan duzun bat.

Norekin egiten nuen talka egoera horretan? Bizitzan garrantzitsua eta baliotsua denari dagokionez, zertan gara desberdinak?


Nire balio batzuez ohartu naiz topaketa horretan? (Beharbada, balio horietaz jabetua nintzen 1. Pausoan)

Gatazkaren bat sortu zen egoera horretan, bestea(k) konbentzitu nahi izan n(it)uen? Niri iritzia aldatu nuen?

Zer sentimendu (sentsazio fisikoak ere beharbada) sumatu nituen egoera horretan?

Nire ustez, nola kudeatu nuen egoera? Zerk lagundu zidan? Zerk lagunduko zidan?

Eman zure taldekideei egoeraren eta esperientzien berri!





3/1. PAUSOA

NIRE ESPERIENTZIA ERREFUXIATUEKIN ETA NIRE GALDERAK

Pentsatu honako galdera hauei buruz eta idatzi:

Non ikusi edo ezagutu ditut errefuxiatuak edo migranteak pertsonalki, edo, hala ez bada, hedabideetan/Interneten bidez?
Non ikusi/ezagutu ditut beste herrialdeetako kultura-jakinduria duten pertsonak?

Topaketa horretan edo horietan pentsatzen dudanean: zer galdera sortzen zaizkit? Zeri buruz jakin nahi nuke gehiago?

Errefuxiatu edo migrante bat ikusiko banu (adb.: ikusi/ezagutu nuena): zer galdetuko nioke?

3/2. PAUSOA

IHES EGITEN DUTEN PERTSONAK EZAGUTU...

Bideoa(k) ikusi ondoren pentsatu honako galdera hauei buruz eta idatzi:

Zer sentimendu adierazten d(it)u Hibak/Osamak?

Zer sentitu dut nik bideoa ikusterakoan?

Zer nahi dut Hibarentzat/Osamarentzat?

Hibarekin/Osamarekin hitz egin ahalko banu, zer gustatuko litzaidake galdetzea?

Zer ideia edo galdera bururatzen zaizkit Hibaren/Osamaren istorioaren edo babes/migrazioaren inguruan?

HAUSNARKETA



Egin objektu baten argazkia; objektu horrek zuretzat bereziki baliotsua den eta galdu nahi ez duzun zerbait adierazi edo sinbolizatu behar du. Gehitu azalpen-esalditxo bat argazkiari.



Aukeratu eta apuntatu bereziki interesatzen zaizun eta babes/migrazioaren gaiari buruz argitu nahi duzun galdera bat.